



2017-06-03ko HERRI BATZARREKO AKTA

Ekainaren 3an, larunbata, arratsaldeko 19:00etan, Itsasoko Koru azpian aurtengo 3. Herri Batzarra burutu da, honako aztergaiak izan dituelarik:

1. Udaleko zerbitzuak herritarrok hurbiletik ezagutzen joateko, **Itsasoko Udaleko Gizarte langilea ere baden Almudena Carrillo Mateosek**, Gizarte Zerbitzuen eskaintza eta eskabideak egiteko prozedurak azaldu ditu eta edozer kontsultarako beregana jotzeko, astelehen eta astearte arratsaldeetan (oraingoz Santa Lutziko Udaletxera deituz). Bere aurkezpen osoa honako esteka honetan ikus daiteke: [Ikus aurkezpena](#)
2. **Udal zerbitzu guztiak Itsason indarrean jartzeko prozesuan**, egindakoak, egiten ari direnak eta egitekoak aurkeztu dira:
 - a. **Entitate erregistroa**: Itsasoko Udalak bertan inskribatzeko eskatuz errekerimendua egin zuenetik hilabete pasa da. Oraindik ez da erantzunik jaso, baina bertako funtzionarioek esan digute erantzungo dutela. Bestetik, helburu berarekin Aldundiak egindako eskaeraren erantzuna (epaitegietan “suspension cautelar positiva” eskatuz) uztailaren 18a baino lehen emango dute.
 - b. **Foru Aldundiaren babesa**: Fondo foralari dagokionez, lehen hiruhileko dirusarrera batera egin zuten Ezkio eta Itsasorena, tramite bat egiteke zegoelako, baina bigarrena (maiatzekoa) banatuta egin dute dagoeneko. Nahiz eta Jaurlaritza eta Aldundiari dagokion tramiteetarako udalerrri moduan funtzionatu, Ogasunaren tramitazioetarako Estatuaren zenbakia behar da, eta horregatik Itsasoko kontribuzio erreziiboak “Ezkioko Udala” izenburuarekin iritsiko zaizkigu. Halere praktikan ez du inongo eraginik, Itsasoko Udalak dagokiona jasoko duelako zerga bilketa honetan.
 - c. **Ekipamendua eta espazioa**: Udaletxean fotokopiagailu bat, ordenagailu bat, baldak eta bi mahai ipini dira. Konektibitatea lortzeko aukera desberdinak baloratzen ari gara.
 - d. **Komunikazioa, gardentasuna, web orria**: Web orria diseinatzeko prozesuan udal gardentasuna da oinarritzeko printzipioa eta horren arabera doa lanketa osoa.
 - e. **Alegiako ranpa eta txatarrerriaren deskontaminazioa**: Elkarterako sarrera ranpa, Joxemari Narraspe Udal langileak egingo du ekainean zehar. Alegiako txatarrerria deskontaminatzen amaitu dute jabeek, Jaurlaritzak eman du oniritzia, eta pare horretan ireki da bidegorria.
 - f. **Proiektuak eta diru laguntzen deialdiak**: Udalak eskaerak egin ditu baserri bideak konpontzeko, Ondarea zaharberritzeko (Goiko Ostatuaren egitura aztertzeko), eta ekainean aterako den “Leader” deialdian Alegiako parkea eta Udaletxeko teilatua eta sarrera berritzeko proiektuak sartuko dira. Bestetik, Ondarea zaharberritzeko deialdian, Itsasoko elizako erretaula errestauratzeko proiektua ere sartu da.
 - g. **Ekimen sozio-kulturalak**: Egin direnak, auzolana, Pott-en 25 urteak (Katillu eguna), Nafarroako Itsasora irteera. Ekainean zehar musika kontzertua, San Juan bezpera eta dantza, xaboi eta ukendu tailerrak. Ekainaren bukaeran eta uztailaren hasieran udaleku artistikoak.
 - h. **Artxibo historikoa**: Artxibo historikoaren zati bat ekarrita dago, baina dena ekarri eta antolatzeko denbora beharko da, duen dimentsioagatik.
 - i. **Ur Kontsurtzioarekin hitzarmena**: Itsasoko udalak hamar urtetarako hitzarmen bat sinatu behar du, eta hor Kontsurtzioak herrian egin beharreko inbertsioak jasoko dira. Momentu honetan lantzen ari gara herrian dauden beharrak.

- j. Parrokiarekin hitzarmena eta erretaula: Hitzarmen bat sinatuko da parrokiarekin, koru azpiaren erabileragatik. Urtean 1.200 euroko diru sarrera egingo zaio parrokiari, bide batez erretaularen errestaurazioa finantziatzen laguntzeko.
 - k. Redesarekin hitzarmena: Orain arte Ezkio-Itsasok urtean 7.000 euro jasotzen zituen Redesa-gandik, hitzarmen bidez. Aurten Itsasoko Udalarekin sinatuko da hitzarmena, eta zentrolean egin duten obra batengatik, kopurua zerbait handiagoa izatea espero da.
 - l. Alegiatik Ormaiztegirako irteera: Gabiria, Ormaiztegi eta Ezkioko alkateekin batera bilera egin da Aldundiko errepide sailarekin, Alegiatik Ormaiztegiara oinez modu seguruan joan ahal izateko alternatibak lantzeko.
 - m. Seinalitika errepideetan eta herri barnean: Errepide nagusietako seinaleen aldaketa uda ondoren egingo dela adierazi ziguten Aldundikoek. Herri barruan berriz, puskatuta dauden seinaleak aldatuko dira, eta falta diren batzuk jarri.
 - n. Etxe guztietako telefono zerrenda: Eginda dago, eta zabaldu aurretik zuzen dagoen frogatuko da.
3. GOIEKI Garapen Agentzian eta GOIERRI FUNDAZIOAn parte-hartzeko aukera aztertu da (UGGASAREN eskaintzarekin alderatuz), eta 5 lantaldetan eztabaidatu ondoren, **batzarkide guztien aldeko bozka** emanez **GOIEKI eta GOIERRI FUNDAZIOAn parte-hartzeko aldeko iritzia jaso** da. Hona hemen garrantzitsutzat jo diren arrazoiak.
- a. Historikoak (Areria) eta geografikoak
 - b. Soziologikoak: joera nagusia senide, lan eta ikasketa
 - c. Mugakide ditugun %80 Goiekiko partaide
 - d. Gabiria eta Ormaiztegiarekin lotura naturala
 - e. Antzeko beste hainbat herri txikirekin elkartruke aukera
 - f. Ekonomikoak: Industria eta berrikuntzaren eskualdea
 - g. Kulturalak eta Goierrri Telebista
 - h. Gizarte ekintza foro bateratuan parte hartzeko aukera
 - i. Hezkuntza eta lan munduaren uztarketa, GOIERRI FUNDAZIOAREN bidez
 - j. GOITUR Turismo dinamizatzailearen aukera berria
 - k. Agenda 21ean Ingurumen egitasmo partekatua
 - l. Guztiaren aurrekontua

Honenbestez, iluntzeko 20:40etan amaitutzat jo da Batzarra. Eskerrak guztioi zuen parte-hartzeagatik.

Itsason, 2017ko ekainaren 3an

Gorka Sasieta Barrenetxea

